

REDUCCIONS, revista de poesia. Juny de 1984. N.º 22.—
Introducció a la darrera poesia basca (1960-1984), Jon Kortazar.

Hau da, «Poesia Basca Contemporània»-z zenbaki berezia. Babespen eta eta bedinkaziorik ez zaio falta, baina bortxatuak ez badira bai ordea derrigortuak. Ongi da gure poesia-ren muestra bat beste hizkuntza batera itzuliaz plazaratzea, baina hautapenetan kontu gehiago erabili beharra dago. Hala ere, hautapenok hain txarrak ez badira ere, hautatuen lanetan bertan hori baino arreta gehiago behar zen, zeren asko ez bai dira hautatuen irudi propioa erakusten dutenak, askozaz gutiago beren lanaren eredugarriak (hoberenak ez dut esan nahi, bakoitzaren estilo eta pentsamenaren adierazgarriak baizik). Behin plazaratzen hasi ezkerok merezi zuen axola gehiagoz ibiltzea. Orain, diren guziak ez badaude, dau denenak ere ez dira.

Reduccions izena, izana bihur dadin erabili ote aburu hori?

Baina *Reduccions* izanagatik ere, Manex Erdozainzi-Etxart (egun, bat aipatzekotan) antologia hori prestatu baino lehen hil balitz kalean uzteaz ausartuko ote ziren? Ez noski. Hare gutiago hil ondorean argitu direnak kontutan hartu bali-tu, eta hortarako ikus: *Herria*, 1752 eta 1753 zenbakiak, *Argia*, 1014. zenb., *Jakin*, 31.a, *Habe*, 47.a eta abar. Adibide hau aski da zer nolako jokabidea erabili den jakiteko.

Baina, J. Kortazarrek bertan aurkezten duen saiaera berari ere egingo dizkiogu zenbait ohar. Nolabaiteko iturri eta ereduak bilatu nahiak galtzen du lan hori. Hortarako premiarik gabeko ziren erudizio ager nahiak. Adibidez, 77. orrialdean Arestiren *Harri eta Herri* tituluari bertan Juan Aranzadiren *Milenarismo vasco*-ko Harri-Aro ideatikakoa dela. Baina, alderdi hortatik, Arestik idearik izatekotan ere Telesforo Aranzadik gure kulturaz zuen aburu hartatik hur-bilago zebilen, «El país vasco no es ningún cuerpo extraño

en el Occidente de Europa», esaten zuelarik. Izen buruko «Harri»-ri iturbururik aurkitzekotan diktadura garaian ezertara mugitzeko hain gogortua zegoen herriagatik (populua-gatik) ere ari zen, baina ziurrago Celso Emilio Ferreiro-ren *Longa noite de pedra* (1962) deritzaionetik, zeren bi urte lehenago argitaratua bai zen eta Arestik oso ezaguna zuen Celsoren poesia. Gainera oso hurbildik jarraituz. Horregatik, «harri»-ren ideiak ez du beste iturririk C. Emilio Ferreirok ematen ziona baizik:

*O teito é de pedra.
De pedra son os muros
i as tebras.*

... ..

*Os corazós dos homes
que ao lonxe espreitan,
feitos están
tamén
de pedra.
I eu, morrendo,
nesta longa noite
de pedra.*

Eta gure adiskide Xesus Alonso Monterok behin baino gehiagotan aitortu du iturburu hori. Beraz, saiaerako argudioak, puntu hortaz, bijoaz ankaz-gora.

Gandiagaren iturriak, Bibliaz gainera, Salvatore Mitxelengan ez ote? Hortik ez ote zen joan Antonio Bilbao bera eta, geroago, neurri tipiago batean, Joxe Azurmendi eta Pello Zabaleta eta beste, Arantzazun sortu zen giroak eraginik? Dena dela, bere inguruan bazituen lagunak eta herri literaturako erromantze zaharrak ere maite zituen eta ditu, Juan Mari Lekuonak bezala, eta horrek ere badu ikustekorik beraien sorketa estetikoa aztertzekeo garaian.

J. A. Arze poeta bakartia? Baina, hein batean, nor ez da poeta bakartia? «Ez dok amairu»koa ez ote zen ba? Gainera, honek, plastika aldetik landu zuen bere orijinaltasuna, bere nortasuna hor erakutsiz; baina han zen Oteiza ere eta bere eragina nabari da. Hutsunera begira eta hitzen hotsari jaramon eginaz, behar bada beste inor baino hurbilago zen Juan Aranzadiren *Milenarismo vasco* teoria hortatik.

Bakardade kontuan ordea ezin esan diasporakoak Euskal Herri barnean ari zirenak baino bakartiago zeudenik. Mirandek bazuen harremanik Andima Ibiñagabeitia, Txomin Peillen eta Paris-en garai hartan ziren euskaldunekin. Hura bezain bakarti edo bakartiago zeuden Mikel Lasa, Juan Mari Lekuona, Koldo Izagirre edo beste edozein. Eta, txarragoa dena, polizi errejimenpeak berez duen hertsitasun guzian. Eta, horregatik, etsipena bera B. Atxaga eta J. Sarrionandian nabari den hainakoa ez ote zen beste horietan?

Ez dut esan beharrik antologia hortarako hautaketan guziekin galga berdina erabili ez duenik. Hori esan beharrik ez dago. Bestalde, aitor dezadan, holako lan batean hori berez gertatzen dena dela. Baina, bai esan dezaket arestian argi utzi nahi izan dudana, hautatu dituen poeten lanak ez direla bakoitzaren literatur pertsonalitate eredutzat hartzekoak.

Dena dela, holako lanak herbestera begira ere egin beharra dago eta kalte baino on gehiago egingo duen usteak kontsolatu beharko gaitu.

J. S. M.